

hondo-hondotik

Pedro Esarte Muniain

(Historialaria)

Del Burgo eta historiaren faltsifikazioa

Jaime Ignacio del Burgok prentsan berriki argitaratutako artikulu batean (2000-IX-16) oro har nazionalistei, hau da, ideologia jakin batekoei historia bestelakotzea eta faltsutzea leporatu die. Printzipioen ikuspegitik, ez da batere jarrera eredu garria politikari batek beste batzuei historia bestelakotzen eta faltsutzen dutelako akusazio orokorrak egitea bere tesien kontrako kontzeptuak erabiltzeagatik, ideien eztabaidarako esparrua hondau egiten delako.

Jaime I. del Burgok hainbat lan argitaratu ditu foruen gaiaz, eta historia, duela hainbat urtetatik, aldezen dituen ideien mesedetan deskribatzen du. Esan dudana baieztatze aldera, hona hemen berriki argitaratu duen artikulutik ateratako hiru adibide:

1. «Nafarroa Espainiako monarkian sartzea (XVI. mendea)...» esaldia gezurra da, Nafarroa armen bidez bereganatu zutelako.

2. «Nafarroa Beherea (XVI. mendean bereizitako merindadea)...» ere ez da egia, Nafarroa Garaia bereizi zutelako erresumatik.

3. «Nafarroak inoiz ez zuen erakunde komunik izan Baskongadekin». Egia esan, ordea, erabatekoak izan zituen, eta baditu, bi euskal eskualdeok garai batzuetan Koroa berean egon zirelako (Nafarroa), erakunde zibil eta militar berak partekatu zituztelako karlistaldietan, hala nola estatuak eskualde berean izan nahi izan dituen guztietan —eskualde militarra edo ministerioen ordezkariak, batez ere XIX. mendean, Nafarroako eta Baskongadetak... Ordezkaritza gisa—, eta, gainera, gaur egun, Espainiako Estatuaren barruan daude, eta hartako erakundeak, legeak eta Konstituzioa partekatzen eta obeditzen dituzte.

Foruaren definizioak

Del Burgok Foruaz eta 1841eko Legeaz dioena ez dator bat errealitate setatsuekin. Del Burgorentzat, Estatu Gortetik sortutako lege bat —haren barruko probintzia zein erakunde autonomoentzako Konstituzio uniforme batekin— «Nafarroako benetako Konstituzioa» de-

narekin batera bizi da, eta, beraz, 1841eko legeaz honako hau dio: «... itun horietatik sortutako estatusa da...», eta «... zerga-zuzenbidean arbitrariotasuna finkatzea...». Eta hau gehitzen du: «... Forua Nafarroako benetako Instituzioa da». Eta berak galdetu eta erantzuten du: «Nafarroaren eta nafarren askatasunen mamitze juridikoa da... —foruek, foru erregimenak— babestu egiten dute nafarrek beren kabuz administratzeko duten eskubidea, Nafarroatik kanpoko botereen esku-hartzerik, babesik edo zaintzarik gabe. Forua honako hau da: autodeterminazioa, autogobernua, dezentralizazioa, Nafarroako botere publikoaren askatasuna bere zerga-arauak ezartzeko eta, batez ere, Erkidegoko balibideak libreki erabiltzeko...».

Dioenez, alde batera uzten du errege Katolikoak Nafarroa konkistatu izana zilegizkoa izan zen edo ez, baina, ondoren, hau dio: «... dudarik gabekoa da, ordea, Nafarroa ezin zela bakartuta egon Espainiako gainerako Komunitatetik, beti haren helburuei lotuta egon baita... Gaztelarekin gure nortasun instituzionala galdu gabe batzea lortu zuten geure arbasoek... Nafarroak berez erresuma izaten jarraitu zuen...», eta «... erabatekoa izan zen haren integrazio espirituala Espainiako Monarkiaren eginkizuntan». Eta *boutade*-a gutxi ez balitz bezala,

honako hau gehitzen du: «... foru erakunde jarraituen nabarmen-tzen da...», eta —hona hemen paradoxa handia—, «... are gehiago, haien sendotzea». Baiezta-pen horien kontraesanak agerian gelditzen

dira gertaera historiko erreale bakoitzean. «Erresuma Gaztelarekin batzean, errespetatu egiten zen Nafarroaren independentzia juridikoa» irakurtzea, gutxienez, lotsatzeko modukoa da.

Ildo beretik, Foruaz berriz ere honako definizio hau ematen du: «Nafarroaren askatasunaren zertze juridikoa...», zeinek, egun, Nafarroak bere kabuz administratzeko duen eskubidea babesten baitu, kanpoko botereen esku-hartzerik,

babesik edo zaintzarik gabe... Nafarroako eskualde botereak bere zerga-arauak ezartzeko eta, batez ere, erkidegoko bi-tartekoak libreki erabiltzeko duen askatasuna...»; horiek guztiak eguneroko errealitateak gezurtatzen dituen adierazpenak dira.

Gertaerak, ordea, ezin argiagoak dira. Fernando Katolikoak errege zedula propioen edo erregeordeen probisioen bitartez gobernatu zituen nafarrak. Erregeordea agintari militar goren zen, eta merkataritzatik exakzioetaraino gobernatu zuen. Aginduak emateko, erregek izendatutako kontseilu batek aholkatzen zuen, eta kontseiluak leial eta esaneko izango zitzaioela zin egin zuen. Hartako kideen artean gehiengoa beti Nafarroaz kanpoko izan zen. Bertan kokatutako tropak nahierara ibili ziren hainbat errege belaunalditan, eta azken horietako inork ere ez zituen bete ez berak ez aurrekoek agindutakoak.

Itunaren garapena

«Nafarroak, Espainiako monarkiaren itzalean, konstituzio politiko bat garatu zuen» esatea lehendik genuena, hau da, geurea, ukatzea da, ezartzen zaiguna justifikatzeko.

Bestalde, 1515ean «Nafarroa Gaztelan behin betiko eta handikiro sartu zen Burgosko Gortetan, eta gazteluak eta kateak betiko batuta agertu ziren Espainiako armari loriatsuan» esatea (beste egile batengandik jaso arren) errealitatea guztiz faltsutzea da, Espainiako armaria aipatu den data baino hiru mende geroagokoa delako.

Kontraesanak agerikoak dira. Urriaren 25eko legeaz eta 1839ko azaroaren 15eko dekretuaz ari dela, honako hau dio: «Nafarroan aurrekoaren guztiz bestelako foru erregimen bat ezarri zuten...», eta, halaber, «Nafarroari autonomia administratiboa eman zitzaion, inoiz benetan izan duena baino askoz handiagoa». Harrigarria da, gutxienez, gurean hain erregimen ona ezartzea, eta, hala ere, probintzia huts bihurtzea «inoiz benetan izan duena baino askoz handia-

goa» den autonomia administratibo batekin.

Erresuma izatetik probintzia izatera aldatzea zein on izan daitekeen jakin ondoren, ez da harrizkoa geroko aldaketa eta kontraforu guztiak oso erabaki onak direla iruditzea tesi horien egileari. Dioenez, «bi aldeak ados jarri ezean Hitzarmena ezin aldatuzkoa dela oso argi dago,

eta Estatuak etorkizunean ezarriko dituen zerga kontzeptu berriak ez dira aplikatuko Nafarroan». Bada, lehenago eta geroago ere ez dira gutxitxo izan Estatuak ezarritako zergak!

Hitzarmenetan, garrantzitsuena hau da: «... beste alde-

rekin berdinen artean hitz egitea... Erresuma zaharreko autonomiak ez du bakarrik barne hartzen gastua libreki erabakitzea, bai eta, bere jatorrizko ahalmenen arabera, Diputazioari egoki iruditzen zaion zerga sistema ezartzea ere. Eta Estatuarekin egindako Itunak honako hau ahalbidetzen duela gehitzen du: «... legitimitate historikoaren printzipioa azken ondorioetaraino eramatea». Ezin da hautsi aldeetako bakar batek nahi duela, «aldeak ados jarrita baizik», eta Nafarroaren eta Estatuaren arteko «elkartea deseginda geratuko litzateke, hartan bat ez etorri gero». Are gehiago, Nafarroaren eta Estatuaren arteko elkarriketak ados jarri gabe etenez gero, eransten du, «Nafarroak bere zerga sistema izaten jarraituko luke, Estatuak desberdina izan arren», honako honetan oinarrituta: «Nafarroaren zerga ahalmena ez da Estatutik eratorritako ahalmen bat: jatorrizkoa da».

Del Burgok ondo baino hobeto daki galdera guztientzako erantzuna 1841etik eman ziren eta Nafarroan erabakitakoa balio gabetu zuten maila bereko lege orokorretan duela (Gorteetakoetan), hala nola gaur egun Espainiako Konstituzioan, Nafarroaren ustezko Konstituzioa errespetatzeaz gabe nafarrek Espainiako errespetatzeaz diharduelako.

Erredakzioan itzulia

esaldiak

«Iraki erasotzea ez litzateke terrorearen aurkako borrokan egindako urratsa, bide horretan desbideratzea baizik»

DANIEL BENJAMIN

(AEBetako Segurtasun Kontseiluko kide ohia)

«2003ko bozak irabaziz gero beste erreferendum batera deituko dugu 2004an, 2005erako nazio burujabea izan nahi baitugu»

LOUISE BEAUDOIN

(Quebeceko Atzerri Gaietarako ministroa)

«Nire ibilbidetik gehien gustatzen zaidana beti modetatik kanpo ibili naizela da, eta horrek asko pozten nau»

JOAN MANUEL SERRAT

(Kantaria)

«Lanean ari naizen film berriarekin gozatzen ari naiz, efektu espezialik ez duelako. Horiek gabeko pelikula bat egiteko irrikan nintzen»

STEVEN SPIELBERG

(Zinemagilea)